# GORABIDE

Nº 335 Zk.
2025eko MARTXOA
MARZO de 2025

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA


**INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA**

**Adinekoentzako egonaldiak**
**Estancias para mayores**
pg. 4 or.



**Lankidetza Aemetekin**
**Colaboración con Aemet**
pg. 6 or.



**Kirol berriak ezagutzen ditugu**
**Conocemos nuevos deportes**
pg. 7 or.

# Familien gogobetetzea



# Satisfacción de las familias




## Martzoaren 8a: Emakumeen Nazioarteko Eguna
5. or.

## 8 de marzo: Día Internacional de las Mujeres
pg. 5


GORABIDE
ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
facebook.com/gorabide | x.com/gorabide | instagram.com/gorabide | gorabide.bsky.social | youtube.com/gorabide
gorabide.com



Laguntzen du
Colabora
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Elevada satisfacción de nuestras familias

## Nuestra actividad en residencias, viviendas, centros de día y recursos de respiro vuelve a obtener resultados muy positivos en la décima encuesta de satisfacción

La opinión de las familias sobre nuestras residencias, viviendas, centros de día y recursos de respiro se mantiene positiva, según los resultados de la décima encuesta, que realizamos durante el año pasado. La satisfacción general es de 4,42 y todas las mediciones son superiores al 4 sobre 5. Los centros en los que la valoración es mayor son las viviendas (4,56) y las residencias (4,55). Después, se encuentran los centros de día (4,44) y los servicios de respiro –estancias temporales y CAD de fin de semana– (4,27).



### Atención muy valorada

Lo más puntuado por las familias es la atención que reciben (con un 4,52 sobre 5) y la que prestamos a su familiar con discapacidad intelectual (4,48), la acogida que realizamos en la Residencia de Estancias Temporales Ola (4,44) y los cuidados personales que reciben las personas usuarias (4,42). Les sigue la información que les proporcionamos (4,39), la posibilidad de realizar visitas (4,30) y el servicio de transporte a centros de día y de respiro (4,32).

Además, han apreciado el estado y la limpieza de las instalaciones (4,29), cómo tenemos en cuenta los deseos y las preferencias de su familiar (4,22). También el nivel de autonomía doméstica que alcanzan quienes viven en pisos con apoyo (4,20) y las actividades que se realizan en los centros de día, las residencias y los servicios de respiro (4,20).

### Puntuaciones más bajas

Las cuestiones menos valoradas, aunque por encima del 4 sobre 5, son su percepción sobre el número de reuniones que tienen en los centros (4,18), la adecuación de espacios a las actividades (4,13), la participación en la planificación centrada en la persona (4,08), el ocio que se organiza desde los centros (4,07) y la satisfacción con la comida (4,05).

Aparte de la evaluación cuantitativa, la encuesta ha recogido opiniones de las familias, que tendremos en cuenta para incorporarlas a los planes de mejora de nuestros servicios.

Hemos preguntado
a las familias
cuál es su opinión
sobre nuestro trabajo.
Lo que más valoran
es cómo les atendemos
a ellas y a sus familiares
con discapacidad intelectual.
También cómo acogemos
a la gente que va a la Ola,
cómo cuidamos a quienes
utilizan nuestros servicios,
y la información que damos.
Además, hemos recogido
muchas sugerencias,
para seguir mejorando.

# Gure familien gogobetetze handia

## Egoitzetan, etxebizitzetan, eguneko zentroetan eta atseden hartzeko baliabideetan gure jarduerak oso emaitza onak izan ditu berriro hamargarren asebetetze-inkestan



Familiei galdetu diegu zer uste duten gure lanari buruz. Gehien baloratzen dutena bai haiei bai adimen desgaitasuna duten beren senideei ematen diegun arreta da. Baita ere Olara doan jendea nola hartzen dugun, ematen dugun informazioa eta gure erabiltzaileak nola zaintzen ditugun. Gainera, iradokizun asko jaso ditugu, hobetzen jarraitzeko.

Familiek gure egoitzei, etxebizitzei, eguneko zentroei eta atseden hartzeko baliabideei buruz duten iritzia ona da, iaz egin genuen hamargarren inkestaren emaitzen arabera. Asebetetze orokorra 4,42koa da, eta neurketa guztiak 4tik gorakoak dira, gehieneko puntuazioa 5ekoa izanik. Gehien baloratzen diren zentroak etxebizitzak (4,56) eta egoitzak (4,55) dira. Ondoren, eguneko zentroak (4,44) eta atseden hartzeko zerbitzuak –aldi baterako egonaldiak eta asteburuko EAZ– (4,27).

### Arreta oso baloratua

Familiek gehien puntuatu dituztenak honako hauek dira: haiek jasotzen duten arreta (5etik 4,52) eta adimen desgaitasuna duen beren senideari ematen dioguna (4,48), Ola Aldi Baterako Egonaldien Egoitzan egiten dugun harrera (4,44) eta erabiltzaileek jasotzen dituzten zainketa pertsonalak (4,42). Eta, jarraian, ematen diegun informazioa (4,39), bisitak egiteko aukera (4,30), eta eguneko eta atseden hartzeko zentroetara joateko garraio-zerbitzua (4,32).

Horrez gain, instalazioen egoera eta garbitasuna aintzat hartu dituzte (4,29), eta beren senidearen nahiak eta lehentasunak kontuan hartzea ere bai (4,22). Baita lagundutako pisuetan bizi direnek lortzen duten etxeko autonomia-maila (4,20) edo eguneko zentroetan, egoitzetan eta atseden hartzeko zerbitzuetan egiten dituzten jarduerak ere (4,20).

### Puntuaziorik txikienak

Gutxien baloratutakoak, nahiz eta 5etik 4 punturekin baino gehiagorekin, zentroetan izaten duten bilera-kopuruari buruzko pertzepzioa (4,18), guneen egokitzapena jardueretara (4,13), pertsonarengan oinarritutako plangintzan duten partehartzea (4,08), zentroek antolatzen duten aisialdia (4,07) eta janariarekiko gogobetetzea (4,05).

Ebaluazio kuantitatiboaz gain, inkestak familien iritziak jaso ditu, gure zerbitzuak hobetzeko planetan txertatzeko kontuan hartuko ditugunak.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Estancias temporales en residencia, para mayores de 65 años

Las personas con discapacidad intelectual mayores de 65 años, que no pueden solicitar estancias temporales en residencias específicas de discapacidad, tienen la posibilidad de acceder a recursos temporales residenciales para personas dependientes. Para ello, deben cumplir los requisitos de dependencia: tener reconocido grado II o III (excepcionalmente, grado I); y reunir los requisitos económicos establecidos.

Las solicitudes deben presentarse, al menos, un mes antes de la fecha de inicio de la estancia, salvo en casos de urgencia. El periodo mínimo es de dos días naturales y el máximo, para urgencias debidamente justificadas, de tres meses. También se puede pedir estancias por descanso o vacaciones de la persona cuidadora, por un máximo de 30 días al año.

Una vez reconocido el derecho a una plaza temporal en residencia, si el acceso no puede ser inmediato, la persona solicitante percibirá una prestación económica, para ayudar al pago de su posible estancia, de forma privada, en una residencia de Bizkaia. Los importes mensuales a percibir en 2025 varían desde un mínimo de 178,12 euros hasta un máximo de 833,96 euros, según el grado de dependencia.

También existe una prestación económica, para facilitar el descanso de quien cuida a un familiar dependiente que percibe la prestación por cuidado en el entorno familiar (PECEF). En ese caso, independientemente del grado de dependencia y de la situación económica, puede solicitar una ayuda para financiar su estancia temporal en una residencia privada, durante un máximo de 30 días naturales, en uno o en dos periodos.

Esa prestación es incompatible con el ingreso temporal en residencia por respiro en el mismo año o con la prestación vinculada a servicio. Pero sí es compatible con estancias por urgencia.

# Egoitzan aldi baterako egonaldiak, 65 urtetik gorakoentzat

Adimen desgaitasuna duten 65 urtetik gorakoek, desgaitasun-egoitza espezifikoetan aldi baterako egonaldirik eskatu ezin dutenek, mendekotasuna duten pertsonentzako aldi baterako egoitza-baliabideak erabiltzeko aukera dute. Horretarako, mendekotasun-baldintzak bete behar dituzte: II. edo III. maila aitortua izatea (salbuespenez, I. maila) eta ezarritako eskakizun ekonomikoak betetzea.

Eskabideak egonaldia hasi baino hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu behar dira, larrialdi-kasuetan salbu. Gutxieneko egonaldia bi egun naturalekoa da, eta gehienekoa, behar bezala justifikatutako larrialdietarako, hiru hilabetekoa. Zaintzailearen atsedenagatiko edo oporrengatiko egonaldiak ere eska daitezke, urtean 30 egunez gehienez.

Egoitzan aldi baterako plaza bat izateko eskubidea aitortu ondoren, eskatzailea ezin bada berehala sartu, prestazio ekonomiko bat jasoko du, Bizkaiko egoitza batean modu pribatuan egin dezakeen balizko egonaldia ordaintzen laguntzeko. 2025ean jasoko diren hileko zenbatekoak gutxienez 178,12 euro eta gehienez 833,96 euro dira, mendekotasun-mailaren arabera.

Mendekotasuna duen senide bat zaintzen eta familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) jasotzen duen pertsonaren atsedena ahalbidetzeko prestazio ekonomiko bat ere badago. Kasu horretan, mendekotasun-maila eta egoera ekonomikoa gorabehera, laguntza bat eska dezake egoitza pribatu batean aldi baterako egonaldia finantzatzeko, gehienez 30 egun naturalez, aldi batean edo bitan.

Prestazio hori bateraezina da urte berean atsedenagatik egoitzan egin beharreko aldi bereko egonaldiarekin edo zerbitzuari lotutako prestazioarekin. Baina bateragarria da larrialdiagatiko egonaldiekin.

BBK SAIOA GORABIDE
Tel. 94 453 90 86
administracionsaioa@gorabide.com

# Adimen desgaitasuna duten emakumeek ama izateko eskubidea aldarrikatzen dute

## Plena Inclusiónek M8aren kanpainak datuen eskasia eta informazio eskuragarriaren eta laguntza pertsonalizatuen beharra nabarmendu ditu

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Plena Inclusiónek gure konfederazioak kanpaina bat abiarazi du, adimen desgaitasuna duten eta beren amatasunari erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen duten emakumeek protagonizatuta. Kolektibo horrek ama-eginkizuna betetzeko gaitasuna zalantzan jartzen duten aurreiritzi eta estereotipoak pairatzen ditu. Eta berdintasunean aurrera egiteko funtsezko eskubide hori mugatzen duten baldintzatzailek daude.




### Erabakitzeko eskubidea

Amatasunari eta adimen desgaitasuna duten emakumeei buruzko datu-eskasiak politika eta baliabide espezifikoak diseinatzea eragozten du. Horregatik, Plena Inclusiónek errealitate horren gaineko berariazko azterlanak eta ikerketak eskatzen ditu. Era berean, sexu- eta ugalketa-osasunari eta amatasunari buruzko informazioa eta prestakuntza ulerterraza eskuragarri egotea aldarrikatzen du, erabakitzeko eskubidea benetakoa izan dadin bermatzeko. Eta adimen desgaitasuna duten emakumeentzako laguntza espezializatuak eta pertsonalizatuak ere erreibindikatzen ditu, bai haurdunaldian bai haurren hazkuntzarako.

# Las mujeres con discapacidad intelectual reclaman su derecho a ser madres

## La campaña de Plena Inclusión por el 8M pone el foco en la escasez de datos y la necesidad de información accesible y apoyos personalizados

Con motivo del Día Internacional de las Mujeres, nuestra confederación Plena Inclusión ha lanzado una campaña protagonizada por mujeres con discapacidad intelectual que reclaman su derecho a decidir sobre su maternidad. Este colectivo se enfrenta a prejuicios y estereotipos que cuestionan su capacidad de cumplir con el rol de madre. Y existen condicionantes que coartan el ejercicio de ese derecho, fundamental para avanzar en igualdad.

### Derecho a decidir

La escasez de datos sobre maternidad y mujeres con discapacidad intelectual impide diseñar políticas y recursos específicos. Por ello, Plena Inclusión reclama estudios e investigaciones específicas sobre esta realidad.

Del mismo modo, aboga por el acceso a información y formación fácil de entender, sobre salud sexual, reproductiva y maternidad, que garantice que el derecho a decidir sea real.

Y también reivindica apoyos especializados y personalizados para las mujeres con discapacidad intelectual, tanto durante el proceso de gestación como para la crianza.

# “Zerbait garrantzitsua” egiteko ilusioa

## Gure Isasti Egoitzan bizi diren pertsonek, zentroko lantaldearekin batera, Aemetentzako sekuentzia meteorologiko oso bat erregistratzeko helburua betetzen laguntzen dute

“Euskadin Aemeteko ordezkariak sekuentzia meteorologiko bat gutxienez erregistratzera animatu gintuen. 30 urte direla esan zigun, eta denbora horretan tresna ia berdinekin eskuratutako datu meteorologikoak izateak eskualde baterako duen balio aparta azaldu zigun”. Horrela gogoratzen dute Lanestosako gure Isasti Egoitzako lagunek “zerbait garrantzitsua” egiteko ilusioa sortu zitzaien unea. Oraingoz, epe horren laurdena gainditu dute, 2017an Estatuko Meteorologia Agentziarekin (Aemet) elkarlanean hasi zirenetik.

**Talde-lana**

Hau talde-lana da, bakoitzak bere interesen eta aukeren arabera laguntzen duena. Pedro goizeko 07:30ean hasten da, eta ihintza edo antzigarra izan den erregistratzen du. Amanciok, Belének, Conchik, Gonzalok, Luisek eta Lupik estazio meteorologikoko eta lorategian dagoen plubiometroko datuak jasotzen dituzte. Santiagok informazio hori guztia ordenagailuan jaso eta Udalera bidaltzen du, bere Facebooken argitara dezan. Luisek eta Conchik, berriz, Lanestosako hainbat tokitan eskegitzen dute.

**Helburua: 2047**

Apaltasunez, irmotasunez eta iraunkortasunez, eta ekarpen zientifiko eta sozial baliotsua egiten ari diren sentsazioarekin, buru-belarri jarraitzen dute beren aletxoa jartzen, 2047. urtean helburua bete ahal izateko.



# La ilusión de hacer “algo importante”

## Las personas que viven en nuestra Residencia Isasti, con el equipo del centro, contribuyen al objetivo de registrar una secuencia meteorológica completa para Aemet

“La delegada de Aemet en el País Vasco nos animó a que realizáramos el registro de, al menos, una secuencia meteorológica. Nos dijo que son 30 años, y nos explicó el gran valor que tiene para una zona contar con datos meteorológicos conseguidos con instrumentos prácticamente iguales durante todo ese tiempo”. Así recuerdan desde nuestra Residencia Isasti, de Lanestosa, el momento en el que nació su ilusión por hacer “algo importante”. De momento, ya han superado la cuarta parte de ese periodo, desde que comenzaron a colaborar con la Agencia Estatal de Meteorología (Aemet), en 2017.

**Trabajo de equipo**

Es un trabajo de equipo, en el que cada cual contribuye según sus intereses y posibilidades. Pedro comienza a las 7:30 de la mañana, registrando si ha habido rocío o escarcha. Amancio, Belén, Conchi, Gonzalo, Luis y Lupi recogen los datos de la estación meteorológica y del pluviómetro que hay en el jardín. Santiago pasa toda la información al ordenador, y la manda al Ayuntamiento para publicarla en su Facebook. Por su parte, Luis y Conchi la cuelgan en varios puntos de Lanestosa.

**Objetivo: 2047**

Con modestia, con perseverancia y constancia, y con la sensación de que están haciendo una valiosa contribución científica y social, no cejan en su propósito de ir sumando su granito de arena, para que se pueda alcanzar el objetivo en el año 2047.



# Kirol berriak ezagutzen ditugu

Jarduera fisikoaren praktika osasungarria eta kirol berriak ezagutzeko motibazioa uztartzen dituen Kirol-bide programa jarri dugu martxan, Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioarekin elkarlanean.

Helduen eta gazteen talde banak hainbat kirol-modalitate praktikatzen hasteko jardunaldi batean parte hartzen dute, hilero, larunbat edo igande goizean. Jarduerak kirol bakoitzeko espezialistek dinamizatzen dituzte, gure boluntarioen laguntza eta parte-hartzearekin.

**Eskubaloia, mahai-tenisa...**
Urtarrilean, eskubaloian aritu ziren; otsailean, esku-pilotan eta herri-kiroletan; eta, martxoan, mahai-tenisean. Saio bakoitzaren ondoren, pintxo bat janez indarberritzen dira!

**Informazio gehiago:**
tiempolibre@gorabide.com
Telefonoa 94 443 12 10

# Conocemos nuevos deportes

Hemos puesto en marcha el programa Kirol-bide, que combina la práctica saludable de actividad física y la motivación de conocer diferentes deportes, en colaboración con la Federación Vizcaina de Deporte Adaptado.

Un grupo de personas adultas y otro de jóvenes participan mensualmente en una jornada de iniciación a diversas modalidades deportivas, en sábado o domingo por la mañana. Las actividades están dinamizadas por especialistas de cada deporte, con apoyo y participación de nuestras personas voluntarias.

**Balonmano, tenis de mesa...**
En enero, practicaron balonmano; en febrero, eskupilota y herri kirolak; y en marzo harán tenis de mesa. Y después de cada sesión, ¡toca reponer fuerzas con un pintxo!

**Más información:**
tiempolibre@gorabide.com
Teléfono 94 443 12 10

## LABURRAK
## BREVES

### Ingurumen-inpaktu txikiagoa
Once Fundazioaren eta Gondra Barandiarán Fundazioaren dirulaguntzei esker, gure Plazakola Egoitzako galdara-sistema aldatu eta beste bat ezarri dugu, eraginkorragoa eta jasangarriagoa. Hala, zaharkituta geratzen ari zen instalazioa ordeztu ahal izanda, ingurumen-inpaktu txikiagoko irtenbideak erabili eta gure energia-kostuak murriztuko ditugu.

### Menor impacto medioambiental
Gracias a las ayudas económicas de Fundación Once y de Fundación Gondra Barandiarán, hemos cambiado el sistema de calderas de nuestra Residencia Plazakola, por uno más eficiente y sostenible. Así, hemos podido sustituir una instalación que se estaba quedando obsoleta, pasamos a utilizar soluciones con menor impacto medioambiental y reducimos nuestros costes energéticos.

### Errugbi inklusiboa Durangon
Durango Rugby Taldeak errugbi inklusiboko talde bat sortu du, astean behin, ostiraletan, Arripausuetako zelaian entrenatzen dena, 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago:
94 443 12 10 telefonoa edo tiempolibre@gorabide.com.

### Rugby inclusivo en Durango
El club Durango Rugby Taldea ha puesto en marcha un equipo de rugby inclusivo, con entrenamiento semanal, en el campo de Arripausueta, los viernes de 19:00 a 20:00. Más información:
Teléfono 94 443 12 10
o tiempolibre@gorabide.com.

GORABIDE

MARZO DE 2025 | Nº 335 Zk | 2025EKO MARTXOA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).




**Cebek-i eta beren Probono Multiempresa proiektutik lagundu diguten pertsona boluntariei eman diegu Gorakide aitorpena.**

**Hemos entregado el reconocimiento Gorakide a Cebek y a las personas voluntarias que nos han ayudado desde su proyecto Probono Multiempresa.**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Martxoaren 29an, larunbatean, **xendazaletasun**-jarduera antolatuko dugu gure Ondo pasa Familian programaren barruan. Horrez gain, elkarri laguntzeko **Kafeak kide artean** taldeekin jarraituko dugu. **Hariez harago ehuntzen** laguntza-sarearen ohiko tailerra astelehenetan izango da, 15 egunean behin.
Eta, asteartero, gure **Ongizate Programa**ko saioak egingo ditugu. Hori guztia, "laCaixa" Fundazioaren laguntzarekin.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
johannalopez@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

## AUTOGESTIO PROGRAMA

- **Helduak:** Asteazkena 5, 18:00etan. Abandoko Udaltegian. Barrainkua 5 (Bilbo).
- **Gazteak:** Asteazkena 12, 17:30etan. La Perrera. Sabino Arana etorb. 50 (Bilbo).

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

El sábado 29 de marzo, vamos a organizar una actividad de **senderismo**, dentro de nuestro programa Diviértete en Familia. Además, continuaremos con los grupos de ayuda mutua **Cafés en compañía**. La red de apoyo **Tejiendo más allá de los hilos** tendrá su taller habitual los lunes, cada 15 días.
Y habrá sesiones de nuestro **Programa Ongizate** cada martes. Todo ello, con apoyo de Fundación "laCaixa".

**Más información e inscripciones:**
johannalopez@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

## PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN

- **Personas adultas:** Miércoles 5, a las 18:00. CMD Abando. c/ Barrainkua nº 5 (Bilbao).
- **Jóvenes:** Miércoles 12, a las 17:30. La Perrera. Avda. Sabino Arana nº 50 (Bilbao).

D.L./L.G. BI-394-2014